**2026KO EKAINAREN 25AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 25 DE JUNIO DE 2026**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea
**ARETOA**: Batzar Aretoa
**EGUNA**: Hogeita bosta
**HILABETEA**: Ekaina.
**URTEA**: Bi mila eta hogeita sei.
**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seietan.
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa.
**DEIALDIA**: Lehena.
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain
**LOCAL**: Salón de Plenos
**DIA**: Veinticinco
**MES:** Junio.
**AÑO**: Dos mil veintiéis.
**HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas.
**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.
**CONVOCATORIA**: Primera.
**NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17)

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / ASISTENTES**:
EAJ-PNV
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK
- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

**ETORRI GABEAK / AUSENTES**:
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Lurdes Auzmendi.

**1.- AURREKO AKTA**. 2026-05-13ko aktaren onespena.

**1.- ACTA ANTERIOR**: Aprobación del acta de 13-05-2026.

Akats ortografiko bat zuzentzeko eskatu da.
Bildutakoek ados egonik, aho batez onartu da.

Se ha solicitado la corrección de un error ortográfico.
Estando los presentes de acuerdo se aprueba por unanimidad.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN**:

a.- KREDITU ALDAKETA. 8. ZENBAKIA DUEN KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2026CRAD0008

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE CRÉDITOS ADICIONALES Nº 8.

Ezagutzera eman da alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa.

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía tratada en la Comisión de Organización.

*“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 8. Kreditu Gehigarrien Espedientea.*

*“ASUNTO.- Modificación de créditos. Expediente créditos adicionales 8.*

*Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikorik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*
*1.- 264.251,70 euroko zenbatekoaz kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, kapituluka honela laburtzen dena:*

*Teniendo en cuenta la necesidad de realizar los gastos que se relacionan en la propuesta que se adjunta y la falta de crédito presupuestario para su financiación, esta Alcaldía eleva al Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de créditos por importe de 264.251,70 euros, que se resume por capítulos del siguiente modo:*

*GASTUAK – GEHIKUNTZAK*

*GASTOS – INCREMENTOS*

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| 2<br>6 | Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketak/Compra b. corrientes<br>Inbertsio errealak / Inversiones reales | *35.000,00*<br>*229.251,70* |
| *GEHIKUNTZAK GUZTIRA* | | *264.251,70* |

*FINANTZAKETA – SARRERAK* *FINANCIACIÓN – INGRESOS*

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| *8* | Finantza aktiboak / Activos financieros | *264.251,70* |
| *SARRERAK GUZTIRA* | | *264.251,70* |

*2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da."*

*2.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobado si no se presentara reclamación alguna.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opinions:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "entendemos que muchos de los gastos son necesarios. Como venimos haciéndolo, nosotros nos abstendremos."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "kopuru handiaz ez bagara ari ere, planteatzen den aldaketa aurreikusi gabeko kreditua denez eta nahiz eta horretarako mekanismoa izan, abstenitu egingo gara."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Aunque no estemos hablando de una cantidad importante, dado que la modificación que se plantea es un crédito no previsto y aunque sea un mecanismo para ello, nos abstendremos."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "140.000€rekin aurreikusi den kontusaila izan da premiazko egoera batean aurkitu garelako, aurrekontuak egin genituenean ez genuen aurreikusi ere egiten. Batzordean eman zitzaizkizuen azalpena eta udaran dagoenez egiteko modua, horregatik aurreikusten da.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "La partida prevista con 140.000 € ha sido porque nos hemos encontrado en una situación de urgencia, cuando elaboramos el presupuesto ni se preveía. La explicación se os dio en la Comisión y se prevé ahora, porque es en verano cuando se puede realizar.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos)
Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Sometida a votación se obtiene el siguiente resultado:
Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos -Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos)
Ausentes: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin eta dagoen aurrekontu egiturari egokituta ondorengo gastuak eta kreditu aldaketa egitea onartu da, gastuak gauzatzea premiazkoa delako -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalteak sortuko lituzkeelako, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direlako:

En consecuencia, se aprueba por mayoría absoluta y ajustándose a la estructura presupuestaria existente, la realización de los siguientes gastos y modificaciones de crédito, por la urgencia en la ejecución de los mismos, cuya ejecución no puede demorarse, dado que la interrupción del ritmo de prestación de estos servicios o, en su caso, la disminución de su nivel de gestión, ocasionaría perjuicios y la insuficiencia de los créditos presupuestarios destinados a financiar:

| KONTUSAILA | KONTZEPTUA | Egungoak / Actuales | Aldaketak / Modificac. | Behin-betikoak/ Definitivos |
|---|---|---|---|---|
| 0110.226.920.00.04 | Beste gastu:notaritza, jabetza erreg. / Otros gastos: jurídicos, contenc., notaría | 5.000,00 | 20.000,00 | 25.000,00 |
| 0270.202.133.10.01 | Sarbide kontrol kamarak / Cámaras control de accesos | 17.000,00 | 15.000,00 | 32.000,00 |
| 0350.622.333.20.01 2025 | Bonberia kultur gunea / Centro cultural Bombería | 721.517,00 | 72.151,70 | 793.668,70 |
| 0220.625.231.40.01 | Etxe babestuetan inbertsioak / Inversiones en viviendas tuteladas | 2.500,00 | 12.100,00 | 14.600,00 |
| 0350.623.337.20.02 | Gaztelekuko ikusentzun instalazioa / Instalac. audiovisuales Gazteleku | 5.000,00 | 5.000,00 | 10.000,00 |
| 0350.623.342.00.02 | Kiroldegiko instalazioen eraberritzea/ Renovac. Instalaciones polideportivo | 0,00 | 140.000,00 | 140.000,00 |
| | | 751.017,00 | 264.251,70 | 1.015.268,70 |

b.- GOIERIKO HERRIEN EKINTZA Fundazioa. Estatutu sozialen 3. artikulua aldatzea eta izaera pribatuko enpresa gehiago fundazioaren kide izateko proposamena. 2026IDBO0016

b.- Fundación GOIERIKO HERRIEN EKINTZA. Modificación del artículo 3 de los estatutos sociales y propuesta para incorporar a la fundación mayor número de empresas de carácter privado.

Ezagutzera eman da Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren eskaera Antolakuntza batzordean tratatutakoa:

Se da a conocer la solicitud de la Fundación Goierriko Herrien Ekintza tratada en la comisión de Organización:

*“Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak, sortu zenetik, estatutuak aldatu izan ditu; sorreran zituen helburuari gizarte beharrei erantzuteko hainbat zehaztasun gehitu dizkie, batez ere erakunde desberdinek, dirulaguntzak eman ahal izateko, helburuetan zehazpen hauek azaltzea eskatu digutelako.*

*"Desde su constitución, la Fundación Goierriko Herrien Ekintza ha venido modificando sus Estatutos, añadiendo a su objeto fundacional una serie de precisiones para responder a las necesidades sociales, máxime cuando las diferentes entidades nos han solicitado que se incluyan en sus objetivos estas especificaciones para poder otorgar subvenciones. En la actualidad, los Fines de la Fundación,*

Gaur egun, Fundazioaren Helburuek, Estatutuen 3 artikuluan jasota daudenek, horrela diote:

recogidos en el artículo 3 de los Estatutos, establecen que:

**3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak eta lurralde eremua**

Fundazioaren helburuak dira heziketa, irakaskuntza gradu eta genero guztietan, prestakuntza eta garapen tekniko eta soziala eta enplegua sustatzea eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoera horretan izateko arriskua duten pertsonak eta/edo desgaltasunen bat duten pertsonak eta/edo gizarte edo lan-arloetan desabantaila-egoerak bizi dituzten pertsonak laneratzea, batez ere Goierriko Eskualdean.

1.- Arestian azaldutako zehazpenen harira, enpresei berrikuntza proiektuetan lagunduz dirulaguntzak lortu ahal izateko, Estatutuetan ondorengo helburua azaltzea eskatzen digute: “ikerketa aplikatua, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ezagutza enpresa eta industria sarera transferitzea”. Gehikuntza horrek Helburuen aldaketa suposatzen du eta, ondorioz, estatutuena.

2.- Goierriko Herrien Ekintzako Patronatu Batzordea gaur egun 18 udal ordezkari, 9 enpresetakoak, Eskolako Zuzendaria eta Fundazioko Zuzendariaz osatuta dago, Ikaslan Fundazioan Ikaslaneko Zuzendaria gehituz.

Gehiengoa udaletxeek edukitzea, nortasun publikoa ematen die fundazioei, eta udaletxe batean integratuta egotera behartzen ditu, horrek bai udaletxe bai fundazioei dakarkien muga eta Administrazio lanak suposatzen duelarik.

Bi fundazioak (Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan) inongo Udaletxeren menpean ez egoteko helburuarekin, eta estatutuek 7. artikuluan dagoeneko ondorengoa baimentzen dutenez (ez du, ondorioz, estatutuen aldaketa suposatzen) zera proposatzen da: enpresen ordezkaritza igotzea, beti ere udalen ordezkapena baino gehiago ez izatera baldintzatuta. Horrela dio 7. artikuluak:

1.- Al hilo de las precisiones anteriormente expuestas, para poder acceder a las ayudas económicas a través del apoyo a empresas en proyectos de innovación, nos solicitan que en los Estatutos se refleje el objetivo de "investigación aplicada, desarrollo tecnológico, innovación y transferencia de conocimiento a la red empresarial e industrial". Este incremento supone una modificación de los Objetivos y, en consecuencia, de los Estatutos.

2.- La Junta del Patronato de Goierriko Herrien Ekintza está compuesta actualmente por 18 representantes municipales, 9 de las empresas, el Director de la Escuela y el Director de la Fundación, a la que se añade el Director de Ikaslan.

La mayoría de los ayuntamientos, dota a las fundaciones de personalidad pública y las obliga a estar integradas en un ayuntamiento, lo que supone una limitación y mayor labor administrativa de las fundaciones.

Con el fin de que las dos Fundaciones (Goierriko Herrien Ekintza e Ikaslan) no dependan de ningún Ayuntamiento, y dado que los Estatutos ya autorizan en su artículo 7 (por lo que no supone una modificación de los Estatutos), se propone elevar la representatividad de las empresas, condicionándolo a que no sea superior a la representación de los Ayuntamientos. Así lo establece el artículo 7:

b) Goierriko Eskualdean egon eta Fundazioaren helburuetan lagundu dezaketen enpresek. Fundazioaren Patronatuan ordezkatuta dauden enpresak Patronatuak berak izendatu eta kargutik kenduko ditu, gehiengo soilez hartutako erabakiaren bitartez, betiere bere kideen erdia gehi bat bozketan bertan presente edo ordezkatuta badaude.

Fundazioaren Patronatuan egoteko aukeratzen diren enpresek pertsona fisiko bana aukeratuko dute beraiek ordezkatzeko. Enpresen ordezkariak ez dira inoiz udalen ordezkariak baino gehiago izango.

*Gaur egun, aurrez esan bezala, besteak beste, 18 udaletxe eta 9 enpresa daude ordezkatuak. Proposamena, izaera mugakor hori gainditzeko asmoarekin, 8 enpresa berri patronatu kide izendatzea izango litzateke. Ondorioz, Patronatu Batzordearen konposaketa horrela geldituko litzateke: 18 udaletxetako ordezkariak, 17 enpresatakoak, Fundaziotako Zuzendari orokorra eta Eskolako Zuzendaria. Ikaslanen kasuan Ikaslaneko Zuzendaria ere berezko kide da.*

*Bestalde, patronoen ekarpen egonkorren ikuspegitik, ikusi daiteke 2021ean ekarpen pribatuak % 53,36ekoak izan zirela, eta hurrengo urteetan ehuneko hori igotzen joan dela 2025ean %60,60ra ailegatuz (ekarpenei buruzko sinatutako artxiboa eransten da).*

*Izaera ez publikoaren baldintzak betetzen direla bermatzen da (patrono EZ PUBLIKOAK gehiengo: 18 udaletxe eta 19 ez publikoak, eta ekarpen aldetik enpresenak gehiengoa suposatzen dutelarik, gaur egun %60,60 enpresena eta %39,44 udaletxeena) kontuan izanik, egoera eguneratu beharko litzateke.*

*Eskaerarekin batera ere GOIEKIk, txosten juridikoa helarazi du.*

*LABURBILDUZ, honakoa eskatzen da: Udal Batzarrean ondorengo proposamenak onartzea, uztailean ospatuko diren Patronatu Batzordeetara ekartzeko:*

*1.- Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren Helburuen aldaketa; honela geldituko lirateke: "Fundazioaren helburuak dira heziketa,*

*En la actualidad, como se ha dicho anteriormente, están representados, entre otros, 18 ayuntamientos y 9 empresas. La propuesta, con la intención de superar ese carácter limitativo, sería nombrar a 8 nuevas empresas como patronos. En consecuencia, la composición de la Junta de Patronato quedaría como sigue: representantes de 18 Ayuntamientos, 17 empresas, Director General de Fundaciones y Director de la Escuela. En el caso de Ikaslan también es miembro nato el Director de Ikaslan.*

*Por otro lado, desde el punto de vista de las aportaciones estables de los patronos, se observa que en 2021 las aportaciones privadas fueron del 53,36%, y que en los años siguientes este porcentaje se ha ido incrementando hasta alcanzar el 60,60% en 2025 (se adjunta archivo firmado de aportaciones).*

*Se garantiza el cumplimiento de los requisitos de carácter no público (patronos NO PÚBLICOS mayoritarios: 18 ayuntamientos y 19 no públicos, y en cuanto a aportaciones suponiendo la mayoría de empresas, actualmente el 60,60% de empresas y el 39,44% de ayuntamientos), por lo que la situación debería actualizarse.*

*La solicitud se acompaña del informe jurídico de GOIEKI.*

*EN RESUMEN, se solicita que en el Pleno del Ayuntamiento se aprueben las siguientes propuestas para su incorporación a las Comisiones del Patronato que se celebrarán en el mes de julio:*

*1- La modificación de los Fines de la Fundación Goierriko Herrien Ekintza, que quedarían*

*irakaskuntza gradu eta genero guztietan, prestakuntza eta garapen tekniko eta soziala, **ikerketa aplikatua, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ezagutza enpresa eta industria sarera transferitzea**, eta enplegua sustatzea eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoera horretan izateko arriskua duten pertsonak eta/edo desgaitasunen bat duten pertsonak eta/edo gizarte edo lan-arloetan desabantaila-egoerak bizi dituzten pertsonak laneratzea, batez ere Goierriko Eskualdean"*

*2.- Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan Fundazioetako Patronatu Batzordeak 37 eta 38 kideetara zabaltzea, hurrenez hurren, 8 kide berriak enpresak izan beharko dutelarik (uztailerako aurreikusita dagoen deialdia egiterakoan haiek zehazturik joango dira).*

*3.- INVENTE Erregistrotik Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan Fundazioak baja ematea, egoera berriarekin publikotasun baldintzak ez liratekeelako beteko. Baja emateko eskaera IGAEra luzatzea."*

GOIEKIk aurkeztutako eskaerarekiko udal Idazkariak txostena eman du (espedientean jasota dago), adieraziz enpresa gehiago sartzea ordezkaritza nagusia udalek osa ez dezaten zilegi izan daitekeela, baina zalantzan jartzen dut horrekin bakarrik eta estatutuak aldatu gabe Fundazioa Beasaingo Udalari atxikita ez egotea lortuko den, Estatutuen 7. artikuluak talka egiten duelako Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 63.1 artikuluarekin. Izan ere, Estatutuen 7. artikuluak dio enpresen ordezkaritza udalena baino handiagoa ezin daitekeela izan EAEko Fundazioei buruzko Legearen 63.1 dio administrazio publikoek Patronatuan izendatzeko eskubidea duten kide-kopuruak proportzionala izan behar duela emandako fundazio-zuzkidurarekiko edo ondarearekiko.

*definidos como "los fines de la Fundación: la educación, la enseñanza en todos los grados y géneros, la formación y el desarrollo técnico y social, **la investigación aplicada, el desarrollo tecnológico, la innovación y la transferencia del conocimiento al tejido empresarial e industrial**, y la promoción del empleo y la inserción laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión social y/o personas con discapacidad y/o personas en situación de desventaja social o laboral, especialmente en la Comarca del Goierri"*

*2.- Ampliar las Comisiones del Patronato de las Fundaciones Goierriko Herrien Ekintza e Ikaslan a 37 y 38 miembros, respectivamente, los 8 nuevos miembros deberán ser empresas (en la convocatoria prevista para el mes de julio estarán detallados).*

*3.- Dar de baja del Registro INVENTE Goierrko Herrien Ekintza e Ikaslan, ya que con la nueva situación no se cumplirían los requisitos de publicidad. Enviar la solicitud de baja a la IGAE. "*

En relación con la solicitud presentada por GOIEKI, la Secretaria municipal ha emitido informe (que consta en el expediente) en el que señala que la incorporación de nuevas empresas puede ser posible para que la representación principal no esté integrada por los ayuntamientos, pero cuestiono si solo con ello y sin modificar los estatutos se conseguirá que la Fundación no esté adscrita al Ayuntamiento de Beasain, ya que el artículo 7 de los Estatutos choca con el artículo 63.1 de la Ley de Fundaciones del País Vasco. En efecto, el artículo 7 de los Estatutos establece que la representación empresarial no puede ser superior a la de los Ayuntamientos, ya que la LFPV establece en su artículo 63.1 que el número de miembros que las Administraciones Públicas tienen derecho a nombrar en el Patronato debe ser proporcional a la dotación fundacional o patrimonio aportado.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “bakarrik komentatu nahiz eta enpresa gehiago sartu, Fundazioak izaera publikoa izaten jarraituko duela, udalen ordezkaritza batzar orokorrean enpresena baino handiagoa delako. Pribatizatzen da baina kontrol publikopean jarraituko du.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “batzorde exekutibotik pasatzen dira patronatura doazen gaiak eta batzorde exekutiboaren gehiena publikoa da. Hori mantendu egiten da. Horrek bermatzen da batzar orokorrera doazen gaiak, lehenengo batzordetik pasa izana.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da GHE Fundazioko eskaera, hau da:

**Lehenik**. Estatutuen 3. artikuluan jasotako fundazioaren xedea aldatzea, eta bertan jasotako ahalmenei honako hauek gehitzea: *ikerketa aplikatua, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ezagutza enpresa eta industria sarera transferitzea*.
**Bigarren**. Patronatua osatzen duten kide pribatuen kopurua aldatzea.
Gaur egun, honako hauek osatzen dute:

- 18 Udalak (bakoitzak ordezkari batekin ordezkatzen da).
- 9 enpresa (bakoitzak pertsona fisiko batekin ordezkatzen da).
- Goierri Eskolako zuzendaria.
- Fundazioko zuzendari gerentea.

* Ikaslanen kasuan, zuzendaria ere bai.
Onartu da, 8 enpresa gehiago sartzea. Guztira 17 enpresa izango lirateke.
**Hirugarren**. INVENTE Erregistrotik Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan Fundazioak baja ematea, egoera berriarekin publikotasun baldintzak ez liratekeelako beteko. Baja emateko eskaera IGAEra luzatzea.

En el turno de intervenciones los asistes exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "únicamente comentar que a pesar de que se incorporen más empresas, la Fundación seguirá teniendo carácter público porque la representación de los ayuntamientos en la asamblea general es mayor que la de las empresas. Se privatiza pero seguirá bajo control público. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "los asuntos que se tratan en el patronato pasan por la comisión ejecutiva y la mayoría de la ejecutiva es pública. Esto se mantiene. Esto garantiza que los asuntos que van a la asamblea general se hayan tratado primero en la comisión. "

Sometida a votación se aprueba por unanimidad la solicitud de GHE:

**Primero**.- Modificar el objeto fundacional que se recoge en el artículo 3 de los Estatutos, añadiendo a las facultades que en él constan lo siguiente: *investigación aplicada, desarrollo tecnológico, innovación y transferencia de conocimiento a empresas y tejido industrial.*
**Segundo**.- Modificar el número de miembros privados integrantes del patronato. En la actualidad está integrada por:

- 18 Ayutamientos (representados cada uno por un representante).
- 9 empresas (representados cada una por una persona física).
- Director de Goierri Eskola
- Director Gerente de la Fundación

*En el caso de Ikaslan, además su Director.
Se aprueba que se integren 8 empresas más, de manera que pasarían a ser 17.
**Tercero**.- Dar de baja del Registro INVENTE a la Fundación Goierriko Herrien Ekintza e Ikaslan, ya que con la nueva situación no se cumplirían los requisitos de publicidad. Enviar la solicitud de baja a IGAE.

c.- ASEGURU-PRIBATUEN KONTRATUA. 2023PEBO0014:

• Ondasun higiezinen eta higigarrien gaineko kalteen aseguruaren eta ibilgailuen aseguruaren urtebeteko luzapena.
• Erantzukizun zibileko aseguruaren 9 hilabeteko luzapena.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena:

*AURREKARIAK*

*I.- 2023-03-02. Udalbatza Osoaren erabakia lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzeari buruzkoa, Beasaingo Udalaren aseguruak kontratatzeko.*

*II.- 2023-05-18. Lizitazio prozedura burutu ondoren, Udalbatza Osoak erabaki zuen, Aseguru pribatuen 1, 2 eta 3, hau da, higiezin eta higigarriei kalteak, erantzukizun zibila eta ibilgailuak ondorengoari esleitzea: SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri .*

*III.- Lizitatzaileek Kontratu Legearen 150. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu ondoren, Alkateak (plenoak horretarako baimena eman da), 2023ko ekainaren 7an Ebazpena eman zuen behin betiko esleipena eginez.*

*IV.- 2023-07-19an, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.k kontratua sinatu zuen (aldez aurretik Alkateak sinatu zuen). Prestazioa emateko epea bi urte 2023ko irailaren 1etik aurrera kontatzen hasita, eta berariaz luzatu ahal izango da eta elkarren artean adostu eta gero URTE BATEKO hiru alditan, baina kontratuaren iraupena guztira ez da izango BOST URTEtik goragokoa.*

*Aldeetako batek uko egiten ez badio kontratua amaitu baino gutxienez hiru (3) hilabete lehenago, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki dezake, urtebetez eta gehienez hiru luzapenekin.*

c.- CONTRATO DE SEGUROS PRIVADOS:

• Prórroga de 1 año del seguro de daños sobre bienes inmuebles y muebles y del seguro de vehículos.

• Prórroga de 9 meses del seguro de Responsabilidad Civil.

Se da cuenta de la propuesta de la comisión de Organización:

*ANTECEDENTES*

*I.- 02-03-2023. Acuerdo del Pleno relativo a la aprobación del procedimiento de licitación y del pliego administrativo y técnico para la contratación de seguros del Ayuntamiento de Beasain.*

*II.- 18-05-2023. Tras el procedimiento de licitación, el Pleno de la Corporación acordó adjudicar los Lotes 1, 2 y 3 de Seguros Privados, esto es, daños a inmuebles y muebles, responsabilidad civil y vehículos a SEGUROS LAGUN ARO, S.A.*

*III.- Presentada por los licitadores la documentación prevista en el artículo 150 de la Ley de Contratos, la Alcaldesa (autorizada por el Pleno) dictó Resolución de 07 de junio de 2023 con adjudicación definitiva.*

*IV.- Con fecha 19-07-2023 se suscribió el correspondiente contrato con Seguros Lagun Aro, S.A. (firmado previamente por la Alcaldesa). El plazo total de ejecución de la prestación será de dos AÑOS, contado desde el 1 de septiembre de 2023, siendo susceptible de prórroga expresa y mutuamente acordada por otros tres periodos de UN AÑO cada uno, sin que la duración total del contrato pueda exceder de CINCO AÑOS.*

*De no mediar renuncia por alguna de las partes con una antelación mínima de tres (3) meses a la finalización del contrato, el órgano de contratación podrá acordar la prórroga del mismo, por un año y con un máximo de tres prorrogas.*

*V.- Aldez aurretik Plenoak onartuta 2025-08-04an kontratua luzatu zen. Iraunaldia. 2025-09-01tik 2026-08-31ra.*
*VI.- Amaitzear dagoenez, baldintza pleguaren 8. artikuluan adierazi bezala, 2026-05-27 udalaren aldetik kontratua luzatzeko aurre-abisua egin zen, hau da, kontratua amaitu eta hiru hilabete lehenago. Maiatzaren bukaeran aseguru etxeak esan zuen erantzukizun zibileko poliza luzatzearen aldekoa ez zela. Aldiz, 2026-06-15ean LAGUN ARO aseguru etxeak adierazi zuen, 1. (ondarea) eta 3. (ibilgailuak) loteak urte betez luzatzearekin ados dagoela, baina ez 2. lotearekin (erantzukizun zibila) Esteban Lasa kalearen urbanizazio-lanetan sortutako erreklamazioak direla medio. Azken kasu honetan, berriro egikaritu arte edo gehienez ere 9 hilabetez kontratua luzatzearekin ados azaldu zen.*

*V.-Previa aprobación del Pleno el 04-08-2025 se procedió a la prórroga del contrato. Vigencia. Del 01-09-2025 al 31-08-2026.*
*VI.- A punto de finalizar, tal y como se indica en el artículo 8 del pliego de condiciones, el 27-05-2026 se realizó un preaviso de prórroga del contrato por parte del ayuntamiento, es decir, tres meses antes de la finalización del contrato. A finales de mayo la compañía aseguradora manifestó que no era partidaria de prorrogar la póliza de responsabilidad civil. En cambio, el 15-06-2026 LAGUN ARO manifiesta su conformidad con la prórroga de los lotes 1 (patrimonio) y 3 (vehículos) por un año, pero no con el lote 2 (responsabilidad civil) por las reclamaciones surgidas en las obras de urbanización de la calle Esteban Lasa. En este último caso, se mostró conforme con la prórroga del contrato hasta una nueva ejecución o hasta un máximo de 9 meses.*

*VII.- Baldintza pleguaren 25. klausularen arabera, prezioa berrikusteko aukerarik ez dago. Primaren kopurua bakarrik aldatuko da aseguratutako ondasunen kopuru aldaketak daudenean, (bajak eta gehitzeak), edota Udal aurrekontuko quantuma aldatzen denean kontratazio organoak ekintza honetarako ahalbidetu duen Alkatearen aurretiazko onarpen espresoarekin.*

*VII.- Según la cláusula 25 del pliego de condiciones, no cabe la posibilidad de revisión del precio. La cuantía de la prima sólo variará cuando se produzcan variaciones en el número de bienes asegurados (bajas e incrementos), o cuando se modifique el Quantum del Presupuesto Municipal con la aprobación previa expresa de la Alcaldesa que el órgano de contratación haya permitido para este acto.*

*VIII. Espedientean ere jasotzen dira idazkari eta kontuhartzailearen txostenak*

*VIII.- Constan en el expediente los informes de la Secretaria y la Interventora.*

*2026ko irailaren 1etik 2027ko maiatzaren 31ra bitarteko aldirako prima osoa 20.997,26 eurokoa da.*

*La prima total para el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2026 y el 31 de mayo de 2027 es de 20.997,26 euros.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*

*Kasu honetan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Kontratu Legea aplikatu behar da (29. artikulua). Luzapena aurreikusita egon behar da eta espresuki erabakia hartu behar da. Ezin dena da, tazituki luzatzea. Luzapena IV. Aurrekarietan esanda bezala, baldintza administratibo pleguaren 8. klausulan eta kontratuetan aurreikusia dago.*
*Beraz, Antolakuntza batzordeak, kontuan izanik, luzapena, organo kontratatzaileak berariaz onartu behar duela, Udalbatza osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

*En este caso es de aplicación la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (art. 29). La prórroga debe estar prevista y debe adoptarse un acuerdo expreso. Lo que no puede ser es que se alargue tácitamente. Prórroga IV. Dicho en los antecedentes, está previsto en el cláusula 8 del pliego de cláusulas administrativas y en los contratos.*
*Por tanto, la Comisión de Organización, teniendo en cuenta que la prórroga debe ser aprobada expresamente por el órgano contratante, eleva al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Lehenik.- Erantzukizun zibileko aseguruari dagokion 2. lotea 9 hilabetez luzatzea, 2026ko irailaren 1etik 2027ko maiatzaren 31ra.*
*Bigarren.- Ondasun higiezinen eta higigarrien gaineko kalteen aseguruari eta ibilgailuen aseguruari buruzko loteak, urtebetez luzatzea 26ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra arte.*
*Hirugarren. Ordaindu beharreko primak ondorengoak izango dira, beti ere aurrekarietako VII puntuan adierazitakoa ematen ez bada :*
*- Ondasun higiezinen eta higigarrien aseguruarena: 37.273,00 €*
*- Ibilgailuen aseguruarena: 4.493,11 €*
*- Erantzukizun zibileko aseguruarena: 20.997,26 €*
*Laugarren. 1. eta 3. loteekiko, 2026-2027ko luzapena formalizatu ostean luzapen bakarra egiteko aukera geratuko litzateke.*

*Primero.- Prorrogar el lote referente al seguro de Responsabilidad Civil por 9 meses, desde el 1 de Septiembre del 2026 hasta 31 de mayo del 2027.*
*Segundo.- Prorrogar por un año los lotes referentes al seguro de daños sobre bienes inmuebles y muebles y seguro de vehículos por un año desde el 1 de Septiembre del 2026 hasta el 31 de agosto del 2027.*
*Tercero. Las primas a abonar serán las siguientes, salvo lo indicado en el punto VII de los antecedentes:*
*- Seguro de bienes inmuebles y mobiliarios 37.273,00 €*
*- Del seguro de vehículos 4.493,11 €*
*- Seguro de responsabilidad civil: 20.997,26 €*
*Cuarto. Respecto a los lotes 1 y 3, una vez formalizada la prórroga 2026-2027, quedaría la posibilidad de realizar una única prórroga.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “dentro del plazo establecido en el pliego el Ayuntamiento comunica la voluntad de prorrogar el contrato y eso es lo que se ha dicho pero, en el informe de secretaria se da a conocer que si bien el preaviso se realizó en plazo por parte de la entidad municipal, el Ayuntamiento estaría en disposición de exigir a la compañía aseguradora el continuar con el contrato de responsabilidad civil .”

Idazkari andreak adierazi du horrela dela aseguru etxea ere aurre-abisu epeari lotuta dagoelako kontratuarekin jarraitu nahi ez badu. Udalak jakinarazi arte LAGUN AROk ezer esan ez zuenez udala kontratua luzatzeko exijitzeko moduan egongo litzateke, baina hori beste gatazka batean sartzea izango litzateke.

La Sra. Secretaria indica que así es porque la compañía aseguradora también está sujeta al plazo de preaviso si no quiere continuar con el contrato. Como LAGUN ARO no dijo nada hasta que el Ayuntamiento lo notificó, el Ayuntamiento estaría en condiciones de exigir una prórroga del contrato, pero ello supondría entrar en otro conflicto.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “garrantzia hartuko du hurrengo lizitazioen prestaketak ikusita aurrekoan aseguru etxe bakarra aurkeztu zela. Aztertu egin beharko da eta ikusi beste herrietako adibideak, merkatua nola dagoen aseguruen esparruan, kontratazio zentralak horrelako zerbitzua lizitatzen duen, etab. Erronka bat dugu ziurtasuna eduki dezagun.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) "viendo que a la licitación anterior se presentó una única empresa de seguros tomará importancia la preparación de la próxima licitación. Habrá que analizar y ver ejemplos de otras localidades, cómo está el mercado en el ámbito de los seguros, si la central de contratación licita este tipo de servicio, etc. Tenemos el reto de asegurarlo. "

Alkate andreak (EAJ-PNV): irailetik aurrera azterketa hori egiten hasi beharko dugu kontutan hartuta aseguruen esparrua aldakorra dela eta baldintzak aldatzen diren heinean konkurrentzia ez dagoela. Bestalde esan, gizartea eraldatzen den moduan kalte ezberdinak estaltzeko beharra dagoela. Azterketak ematen duenaren arabera, plegua adostu beharko da. Kontratazio zentraleko aukera ere arakatuko dugu."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): a partir de septiembre deberemos comenzar a realizar este análisis teniendo en cuenta que el ámbito de los seguros es cambiante y que a medida que cambien las condiciones no hay concurrencia. Por otra parte, la transformación social exige cubrir diferentes daños. De acuerdo con lo que arroje el análisis, deberá acordarse el pliego. También exploraremos la opción de la central de contratación. "

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Tras debatir el asunto suficientemente los asistentes muestran su conformidad con la propuesta.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Sometida a votación se aprueba por unanidad.

d.- <u>BEASAINGO UDALAREN SEXU-JAZARPENARI, SEXU ETA GENERO-ARRAZOIENGATIKO JAZARPENARI ETA BESTE INDARKERIA MATXISTEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA. ONESPEN-PROPOSAMENA</u>. 2026PEBO0041

d.- <u>PROTOCOLO DE ACTUACIÓN ANTE EL ACOSO SEXUAL, ACOSO SEXUAL Y POR RAZÓN DE GÉNERO Y OTRAS VIOLENCIAS MACHISTAS DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN. PROPUESTA DE APROBACIÓN.</u>

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena:

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

*"AURREKARIAK*

*Beasaingo Udalean sexu-jazarpenari, sexu eta genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta beste indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa ezartzeak Udalak 2025ean onartutako Beasaingo Udalaren I. Barne Berdintasun Planean aurreikusitako neurrietako bat betetzeari erantzuten dio.*

*Legeek ezartzen duten markoaren arabera, ezinbestekoa da enpresek lan-esparruan sexu-jazarpenari eta sexuan- eta generoan-oinarritutako jazarpenari aurre egiteko jarduera-protokolo argi, eguneratu eta eraginkor bat izatea.*
*Honako arauek osatzen dute sexu-jazarpenari, sexu eta genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta beste indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloaren lege markoa:*

- *Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta emakumeen aurkako*

*"ANTECEDENTES:*

*La implantación en el Ayuntamiento de Beasain de un protocolo para combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y de género y otras violencias machistas responde al cumplimiento de una de las medidas previstas en el I Plan de Igualdad Interna del Ayuntamiento de Beasain aprobado por el Consistorio en 2025.*

*Las leyes establecen como marco la necesidad de que las empresas dispongan de un protocolo de actuación claro, actualizado y eficaz frente al acoso sexual y por razón de sexo y de género en el ámbito laboral.*

*El marco legal del protocolo para combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y de género y otras violencias machistas está constituida por las siguientes normas:*

- *Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de igualdad de mujeres y hombres y*

*indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzen dituen legearen testu bategina.*

- *LGTBI Berdintasunerako Errege Dekretua (1026/2024): Lan-esparruan sexuan, generoan edota LGTBI izaera/aniztasunean oinarritutako diskriminazioari eta jazarpenari aurre egiteko.*
- *10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralarena.*
- *31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.*

*PROPOSAMENA*

*Beasaingo Udalaren I. Barne Berdintasun Plana onartzeko osatutako Negoziazio Batzorde berak garatu du sexu-jazarpenari, sexu eta genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta beste indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa. Hori dela eta, Antolakuntza Batzordeak Udal Osoko Bilkurari honako proposamena egiten dio:*

*Lehenengoa: Beasaingo Udalaren sexu-jazarpenari, sexu eta genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta beste indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa onartzea, protokoloa indarrean jarri ahal izateko.*

*Protokolo honen helburu nagusia lan-ingurune segurua bermatzea da, jazarpen-egoerak prebenitzeko, antzemateko eta horiei aurre egiteko bidea irekiz.*

*Protokoloak salaketak kudeatzeko prozedura jasotzen du. Prozedurak konfidentzialtasuna, azkartasuna, inpartzialtasuna eta biktimaren babesa bermatzen ditu, jazarpen egoeren aurrean erantzun seguru, bidezko eta eraginkorra emateko.*

*Honetaz gain, protokoloak udalean errespetuzko, protokoloak prebentzio-funtzioa betetzen du eta udalean berdintasunezko eta aniztasunezko antolaketa-kultura bat eraikitzen laguntzen du, indarkeria matxisten aurrean zero tolerantzia bermatuko duena.*

*Alde horretatik, protokoloa egokia da honako aurrerapauso hauek sustatzeko:*

*Botere-harremanak eraldatzeko: Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko*

*de garantía de una vida libre de violencia machista contra las mujeres*

- *Real Decreto para la Igualdad LGTBI (1026/2024): Para combatir la discriminación y el acoso por razón de sexo, género y/o diversidad LGTBI en el ámbito laboral.*
- *Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de Garantía Integral de la Libertad Sexual.*
- *Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.*

*PROPUESTA:*

*La misma Comisión de Negociadora que aprobó el primer Plan de Igualdad Interno del Ayuntamiento de Beasain ha desarrollado el Protocolo para hacer frente al acoso sexual, por razón de sexo y de género y otras violencias machistas. Por ello, la Comisión de Organización propone al Pleno Municipal:*

*Primero: Aprobar el protocolo de actuación ante el acoso sexual, acoso sexual y por razón de género y otras violencias machistas del Ayuntamiento de Beasain para su entrada en vigor.*

*El objetivo principal de este protocolo es garantizar un entorno laboral seguro que permita prevenir, detectar y combatir situaciones de acoso.*

*El protocolo recoge el procedimiento de gestión de denuncias. El procedimiento garantiza la confidencialidad, rapidez, imparcialidad y protección de la víctima para dar una respuesta segura, justa y eficaz ante situaciones de acoso.*

*Además de gestionar las denuncias por acoso, el protocolo cumple con la función de prevención y contribuye a construir en el ayuntamiento una cultura organizativa de respeto, igualdad y diversidad que garantice la tolerancia cero frente a las violencias machistas.*

*En este sentido, el protocolo es adecuado para promover los siguientes avances:*

*Transformar las relaciones de poder: Revertir las relaciones de poder que generan*

desberdintasunak sortzen dituzten botere-harremanak iraultzeko.

desigualdades entre mujeres y hombres en el ámbito laboral.

Indarkeria matxista-egoera guztiei aurre egiteko: Genero- eta identitate-aniztasunetik zein orientazioetatik eratorritako indarkeria-egoerei aurre egiteko.

Enfrentar todo tipo de violencias machistas: responder ante situaciones de violencia derivadas tanto de la diversidad de género e identidad como de las orientaciones.

Egiturazko arazoa ikusarazteko: Sexu-jazarpena eta sexuan zein genero eta orientazioan oinarritutako jazarpena arazo indibiduala ez dela erakusteko, egiturazkoa baizik.

Visibilizar el problema estructural: Poner en evidencia que el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, género y orientación no es un problema individual, sino estructural.

Erantzukidetasun kolektiboa sustatzeko: Jazarpenaren prebentzioa erakunde osoak partekatzen duen erantzukizun gisa definitzeko.

Fomentar la corresponsabilidad colectiva. Definir la prevención del acoso como una responsabilidad compartida por toda la organización.

Eskubideak babesteko: pertsona guztiek beren lana duintasunez eta errespetuz garatzeko duten eskubidea babesteko

Protección de los derechos: protección del derecho de todas las personas a desarrollar su trabajo con dignidad y respeto

Protokoloak lagundu egiten du Udalak berdintasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan dituen legezko betebeharrak betetzen eta aldi berean, langileen oinarrizko eskubideak babesten ditu, indarkeria matxistarik gabeko eremu baterantz aurrera eginez."

El protocolo contribuye al cumplimiento de las obligaciones legales del Ayuntamiento en materia de igualdad y prevención de riesgos laborales y, al mismo tiempo, protege los derechos fundamentales de los trabajadores, avanzando hacia un ámbito libre de violencia machista.

## PROTOKOLOA

## PROTOCOLO

### 1. SARRERA

### 1. INTRODUCCIÓN

Lan-inguruneko sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena emakumeen aurkako indarkeria motak dira, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko arazoan dute jatorria. Berdintasun-politikek eskaintzen dizkiguten tresnen bidez prebenitzea, beraz, administrazio publikoen betebeharra da. (Emakundeko Protokoloa – Sarrera).

El acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el entorno laboral son formas de violencia contra las mujeres, que tienen su origen en el problema estructural de la desigualdad entre mujeres y hombres. La prevención a través de los instrumentos que nos ofrecen las políticas de igualdad es, por tanto, una obligación de las administraciones públicas. (Protocolo de Emakunde - Introducción)

Era berean, LGTBI komunitateko pertsonak —intersex gorputzak dituztenak, gorputz transgeneroak, pertsona homosexualak eta lesbikoak— zein tradizionalki ezarritako genero-eskemak hausten dituzten emakume eta gizonak ere, desberdintasun estruktural beragatik, lan-

Asimismo, tanto las personas de la comunidad LGTBI -con cuerpos intersex, cuerpos transgénero, personas homosexuales y lesbianas- como las mujeres y los hombres que rompen los esquemas de género tradicionalmente establecidos son también

*inguruneko sexu-jazarpena eta oro har diskriminazioa jasaten dituzten taldeak dira.*

*Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzen dituen legearen testu bateginak arautzen duen bezala eta enpresetan LGTBI pertsonen berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko neurri planifikatuak garatzen dituen urriaren 8ko 1026/2024 Errege Dekretuak ezartzen duen markoaren arabera, ezinbestekoa da enpresek lan-esparruan sexu jazarpenari eta sexuan- eta generoan-oinarritutako jazarpenari aurre egiteko jarduera-protokolo argi, eguneratu eta eraginkor bat izatea.*

*Sexu-jazarpena eta sexu eta genero-arrazoiengatiko jazarpena sexuagatiko diskriminazio-ekintzak edo jokabideak delituak dira, bai EAEko araudian [1] bai Estatukoan [2] tipifikatuak. Gainera, izaera psikosozialeko lan-arriskuak dira, eta horiek pairatzen dituzten pertsonen segurtasunean eta osasunean eragin dezakete.*

*"Indarkeria matxistak" terminoa[3] gehitu dugu definizioan bertan, indarkeriaren kausak eta eragilea aipatzen dituelako: "matxismoak eragindako indarkeria" eta "arraren edo matxistaren indarkeria". "Matxista" kontzeptuaren erabilerak menderatze-sistema maskulinoari nahiz sistema horren muturreko jarrerei egiten die erreferentzia.*

*Izan ere, uste dugu termino horrek emakumeen eta normatiboak ez diren pertsona guztien aurka hainbat testuingurutan gauzatzen diren indarkeria-mota guztiak biltzen dituela. Indarkeria eta sexu-jazarpena, baita sexuagatiko, sexu-identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-orientazioagatiko indarkeria eta jazarpena ere, egiturazko arazoak dira; horregatik, pertsona guztiek dute konponbidea emateko ardura. Horrela, "indarkeria matxistak" terminoa erabiliz, emakumeek emakume izateagatik jasaten*

*grupos que, por la misma desigualdad estructural, sufren acoso sexual y discriminación en el entorno laboral.*

*Tal y como se regula en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, y en el marco establecido por el Real Decreto 1026/2024, de 8 de octubre, por el que se desarrollan medidas planificadas para garantizar la igualdad y no discriminación de las personas LGTBI en las empresas, es imprescindible que las empresas dispongan de un protocolo de actuación claro, actualizado y eficaz en para hacer frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo y género en el ámbito laboral.*

*El acoso sexual y el acoso por razón de sexo y género constituyen actos o conductas discriminatorias por razón de sexo son delitos tipificados tanto en la normativa vasca como en la estatal . Además, se tratan de riesgos laborales de carácter psicosocial que pueden afectar a la seguridad y salud de las personas que lo sufren.*

*Se añade el término "Violencias machistas" en la propia definición, ya que hace referencia a las causas y al agente causante de la violencia: "violencia provocada por el machismo" y "violencia del macho o machista". El uso del concepto "machista" hace referencia tanto al sistema masculino de dominación como a las actitudes extremas del mismo.*

*Creemos que este término engloba todas las formas de violencia que se ejercen contra las mujeres y contra todas las personas que no son normativas en diferentes contextos. La violencia y el acoso sexual, así como la violencia y el acoso por razón de sexo, identidad sexual, expresión de género u orientación sexual, constituyen problemas estructurales por los que todas las personas tienen la responsabilidad de resolverlos. De este modo, la utilización del término "violencias machistas" pretende abarcar no solo las violencias que sufren las mujeres por*

*dituzten indarkeriak ez ezik, beste indarkeria mota batzuk ere barneratu nahi dira, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia, besteak beste.*

*Dokumentua errazago irakurtzeko, hemendik aurrera, "sexu-jazarpena edota genero arrazoiengatiko jazarpena" terminoa erabiliko da lehen aipatutako guztiei erreferentzia egiteko.*

*Halaber, erakundeak behartuta daude langileen laneko segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzera [1], bai prebentzio-politiken bidez —kasuak gerta ez daitezen— bai politika erreaktiboen bidez —gerta daitezkeen kasuei berehalako erantzuna emateko—.*

*Beasaingo Udalaren protokolo honek ikuspegi prebentiboa eta ikuspegi erreaktiboa barneratuko ditu. Lehenengoa, ikuspegi prebentiboa, funtsezkoa da protokolo hau aplikatu behar ez izateko. Bigarrena, ikuspegi erreaktiboa, sexu-jazarpena edota generoagatiko jazarpena gertatzen den kasuetan jarraitu beharreko urratsak zehazteko ezinbestekoa da.*

*Prebentzio-lanketari dagokionez, lehen lan-ardatzek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa jorratuko dituzte, baita indarkeria matxisten prebentzioa ere.*

*Horregatik guztiagatik, ildo horretan jarraitu beharreko jarraibide batzuk jasoko dira. Sexu-jazarpena edota generoagatiko jazarpena gertatzen den kasuei dagokienez, kasuak ebazteko arduradunak nortzuk izango diren zehaztuko da, hau da, "Aholkularitza Konfidentziala" izeneko organoa osatuko duten pertsonak. Organo hori prestakuntza espezializatua duten pertsonek osatuko dute, eta bertan zehaztuta egongo dira bai salaketa-*

*el hecho de serlo, sino también otras formas de violencia como la transfobia, la lesbofobia y la homofobia, entre otras.*

*Para facilitar la lectura del documento, a partir de ahora se utilizará el término "acoso sexual y/o acoso por razón de género" para hacer referencia a todos los mencionados anteriormente.*

*Asimismo, las entidades están obligadas a adoptar medidas necesarias para la protección de la seguridad y salud laboral de las personas trabajadoras, tanto a través de políticas preventivas —para evitar que se produzcan—, como reactivas —para dar una respuesta inmediata a los posibles casos—.*

*Este protocolo del Ayuntamiento de Beasain incorporará tanto el enfoque preventivo como el reactivo. El primero, el enfoque preventivo, es fundamental para que no haya que aplicar el presente protocolo. El segundo es imprescindible para definir los pasos a seguir en los casos de acoso sexual y/o por razón de género.*

*Respecto a la labor preventiva, los primeros ejes de trabajo abordarán la formación y sensibilización en materia de igualdad de mujeres y hombres, así como la prevención de las violencias machistas.*

*Por todo ello, se recogerán una serie de pautas a seguir. En los casos de acoso sexual y/o por razón de género, se especificará quiénes serán las personas responsables de resolverlo, es decir, las personas que formarán el órgano denominado "Asesoría Confidencial". Dicho órgano estará integrado por personas con formación especializada, en el que se determinará tanto el modelo de denuncia como el cauce a seguir en cada uno de los dos procedimientos.*

[1] 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, 14.artikulua.

*eredua, bai bi prozeduretako bakoitzean jarraitu beharreko bidea ere.*

## *2. UDALAREN KONPROMISOA*

*Udalak plantillako langile bat du, lanaldi osokoa (%100ko jornadan), bide garbiketa zerbitzurako, 1. planoaren barruan urdinez markatutako eremuan espaloiak, galtzadak eta oinezkoentzako eremuak eskuz garbitzeko.*

*Langile hori ez da agertzen subrogazio zerrendan, nahiz eta funtzionalki zerbitzuaren organigraman txertatua egon.*

*Hala ere, aurreikuspenen arabera, 2025ean zehar udal plantillako langile horrek erretiroa hartuko du, eta, beraz, enpresa esleipendunak espaloiak, galtzadak eta oinezkoentzako espazioak eskuz ekortzeko zerbitzua bere gain hartu beharko du , erretiroa hartzen duen unean; horretarako peoi garbitzaile berri bat atxiki beharko du plantillara.*

*Horrek kontratua aldatzea ekarriko du, administrazio-agiriaren 39. artikuluan eta ezaugarri koadroko 5. eta 28. ataletan aurreikusitakoaren arabera*

*6.3.- artikulua Makinaria ordezkatzea*

*Igarotako zerbitzu aldiagatik Udalak balia ezintzat joko balitu urarekin garbitzeko kamioia, enpresa kontratistak urarekin garbitzeko kamioia berria erosi beharko luke ordezkatzeko, eta horrek berarekin ekarriko du kontratuan aldaketa bat egitea, hain zuzen, administrazio agiriko 39.*

*FUNDAMENTOS JURIDICOS*

*La modificación del contrato se encuentra prevista y descrita en la documentación que obra en el expediente, en cuanto a su contenido y montante económico, a saber:*

*1.- El Pliego de Prescripciones Técnicas en su Artículo 3.1 ”BARRIDO MANUAL DE ACERAS, CALZADAS Y ESPACIOS PEATONALES”, Y 6.3, “SUSTITUCION DE MAQUINARIA”, indican respectivamente:*

*Artículo 3.1,5 párrafo: Modificación prevista del contrato: Peón limpiador:*

*El Ayuntamiento cuenta con un operario de plantilla, a jornada completa (100% de jornada), destinado al servicio de limpieza viaria realizando labores de barrido manual de aceras, calzadas y zonas peatonales en el ámbito marcado en color azul dentro del plano 1.*

*Este operario no figura en el listado de subrogación, si bien funcionalmente estará dentro del organigrama del servicio.*

*No obstante, previsiblemente a lo largo del 2025 este operario de plantilla municipal se jubilará, por lo cual, la empresa adjudicataria deberá asumir el servicio de barrido manual de aceras, calzadas y espacios peatonales en la zona asignada al mismo en el momento en que se produzca la jubilación, debiendo adscribir un nuevo peón limpiador a la plantilla.*

*Ello implicará una modificación del contrato, según lo previsto en el artículo 39 del pliego administrativo y en los apartados 5 y 28 del cuadro de características.*

*Artículo 6.3.- Sustitución de maquinaria*

*En caso de que, por el periodo de servicio transcurrido, el Ayuntamiento declarase inservible el camión baldeador, la empresa contratista deberá adquirir un nuevo camión para su sustitución y ello implicará una modificación del contrato previsto en el artículo 39 del pliego*

*artikuluan eta ezaugarri koadroko 5. eta 28. artikuluetan aurreikusitakoa.*
*Makineriaren amortizazio epea hamar (10) urtekoa izango da.*

*2.- ZERBITZU ELKARTEA S.L.rekin 2024/11/14ean sinatutako kontratuan, bere bederatzigarren estipulazioan. IZAN LITETEZKEEN KONTRATUAREN ALDAKETAK dio:*

*Plegu teknikoaren 3,1 eta 6,3 artikuluetan aurreikusitakoak, hau da:*

*3.1. artikulua: Kontratistaren plantillari peoi garbitzaile bat atxikitzeko betebeharra, gaur egun, kale garbiketako zerbitzuaren organigraman dagoen, espaloiak, galtzadak eta oinezkoentzako eremuak eskuz ekortzen dituen (1. planoan urdinez markatutako eremua), udal-langileak erretiroa hartuz gero.*

*6,3 artikulua: Urarekin garbitzeko kamioi berri bat erostea (6.3.1 atalean adierazitako ezaugarriekin), baldin eta Udalak egungo kamioi baldekatzailea erabiltezina deklaratzen badu.*

*Makineriaren amortizazio epea hamar (10) urtetakoa izango da.*

*Kontratuaren amaieran, makineria udal jabetzakoa bihurtuko da, eta honek kontratistari ordainduko dio amortizatzeke dagoen zenbatekoa edo hurrengo enpresa kontratistari jasanarazteko aukera izango du.*

*II.- 3. 3.1 atalean aurreikusitako aldaketari dagokionez, KONTRATUAREN IGOERA KALKULATZEARI BURUZKO___TXOSTENA, 2026/06/15ean udal obra eta zerbitzuen zerbitzuburuak eginikoa.*

*Udal-plantillako langileak 2026ko urriaren 5ean hartuko du erretiroa. Beraz, 3.1 artikuluan aurreikusitako aldaketa espaloiak, galtzadak eta oinezkoentzako eremuak eskuz ekortzeko lanei eusteko egin behar da, 1. planoaren barruan urdinez markatutako eremuan.*

*administrativo y en los artículos 5 y 28 del cuadro de características.*

*El periodo de amortización de la maquinaría será de diez (10) años.*

*2.- El Contrato suscrito con SERBITZU ELKARTEA S.L con fecha 14/11/2024 en su estipulación Novena: POSIBLES MODIFICACIONES DEL CONTRATO, indica:*

*Las previstas en los artículos 3,1 y 6,3 del pliego técnico, esto es:*

*Artículo 3,1: Deber de adscribir a la plantilla de la contratista un peón limpiador, en caso de jubilación del operario municipal que realiza labores de barrido manual de aceras, calzadas y zonas peatonales (ámbito marcado en azul en el plano 1) y que a día forma parte del organigrama del servicio de limpieza viaria.*

*Artículo 6,3: Adquisición de un nuevo camión baldeador (con las características señaladas en el apartado 6.3.1), en caso de que el Ayuntamiento declare inservible el actual camión baldeador.*
*El periodo de amortización de esa maquinaría será de diez (10) años.*

*A la fecha de finalización del contrato, esta maquinaria quedará en propiedad del Ayuntamiento quien satisfará a la contratista el importe pendiente de amortización o podrá repercutirlo a la siguiente empresa contratista.*

*3. Informe del Jefe de Obras y Servicios municipal de fecha de 15/06/2026 relativo al CALCULO DEL INCREMENTO DEL CONTRATO con respecto de la modificación prevista en el apartado 3.1 PEON LIMPIADOR*

*La jubilación del operario de plantilla municipal será efectiva con fecha 5 de octubre de 2026, por lo que la modificación prevista en articulo 3.1 debe llevarse a cabo a fin de mantener la ejecución de las labores de barrido manual de*

Administrazio-agiriaren 39. artikuluan adierazten denez, peoi garbitzailearen kostu zenbatetsia 66.715,82 € + BEZaren% 10 da.

Lizitazioa kalkulatzeko erabilitako parametroen arabera kostuak aztertu ondoren, eta Zerbitzu Elkartea SL zerbitzuaren esleipendunak aurkeztutako txostena gainbegiratu ondoren, honako hau ondorioztatzen da:

2026-2029 aldian peoi garbitzaile bat lanean hasteko urteko kostua 66.715,82 € + % 10eko BEZa da.

Hileko kostua:5.559,58 €+BEZaren%10

4. MAKINAK ORDEZKATZEA atalean aurreikusitako aldaketari dagokionez, KONTRATUAREN GEHIKUNTZA KALKULATZEARI BURUZKO TXOSTENA, 2026/06/15ean udal obra eta zerbitzuen zerbitzuburuak eginikoa.

2001/12/05ean matrikulatu zen ordeztuko den baldekatzeko kamioia.

Ordezkapena 24 urteko zerbitzua duen ibilgailu bati dagokio, duela 14 urte amortizatu zena eta segurtasuna, fidagarritasuna eta zerbitzuaren jarraitutasuna arriskuan jartzen dituzten gabezia garrantzitsuak dituena.
Administrazio-agiriaren 39. artikuluan adierazten denez, buxatzeko kamioia ordezteko aurreikusitako kostua 137.566,00 €+ BEZ da.

Ibilgailu hori ordezteko beharrari buruzko balorazioa bat dator zerbitzuaren esleipenduna den Zerbitzu Elkartea SLrekin, eta hori jasota dago horretarako egindako txostenaren 2. eranskinean.

Urteko kostua kalkulatzeko, eskaintza irmoa dute kamioiaren txasisaren fabrikatzaileak (IVECO EUROCARGO ML150E22P modeloa “EURO 6E”, 220 HP), eta garbiketa-tangaren

aceras, calzadas y zonas peatonales en el ámbito marcado en color azul dentro del plano 1.

En el artículo 39 del pliego Administrativo se indica que el coste estimado del peón limpiador es de 66.715,82 € + 10% de IVA

Habiendo procedido al analisis de costes de acuerdo con los parámetros utilizados para el cálculo de la licitación, así como, a la supervisión del informe presentado por la adjudicataria del servicio, Zerbitzu Elkartea S.L, (Véase informe), se concluye:

El coste anual para la incorporación de un operario peón limpiador, en el periodo 2026 - 2029, es de 66.715,82 € + 10% IVA.
El coste mensual: 5.559,58 € + 10% IVA

4. Informe del Jefe de Obras y Servicios municipal de fecha de 15/06/2026 relativo al CALCULO DEL INCREMENTO DEL CONTRATO con respecto de la modificación prevista en el apartado 6.3 SUSTITUCION DE MAQUINARIA.

El camión baldeador objeto de sustitución fue matriculado con fecha 05/12/2001.

La sustitución obedece a un vehículo con 24 años de servicio, amortizado hace 14 años, y con importantes deficiencias que comprometen la seguridad, fiabilidad y continuidad del servicio.
En el artículo 39 del pliego Administrativo se indica que el coste estimado para la sustitución del camión baldeador es de 137.566,00 € + IVA

La valoración relativa a la necesidad de sustitución de este vehículo es compartida con la adjudicataria del servicio, Zerbitzu Elkartea S.L, el cual se refleja en el anexo 2 del informe realizado al efecto.

Para el cálculo del coste anual se dispone de oferta en firme del fabricante del chasis del camión (IVECO EUROCARGO modelo ML150E22P “EURO 6E”, 220 CV), y del suministrador de la cisterna de baldeo

*hornitzailearen 8.500 litroko edukiera duen aluminiozko RIGUAL etxekoa) (ikus txostenaren 3. eta 4. eranskinak).*

*Aurkeztutako eskaintzetan deskribatzen diren ezaugarri teknikoei dagokienez, Agiri Teknikoak eskatzen dituen ezaugarri teknikoak egiaztatu ondoren, aurrekontuan jasotako materialak Agiri Teknikoak eskatutakoa betetzen duela ondorioztatu da.*

*Kamioi-baldekatzailearen hornidurari dagokion inbertsioa guztira 140.740,00 €+ BEZ da guztira ( % 10)*

*Kontratuan 10 urteko amortizazioa aurreikusten dela kontuan hartuta, horrek urtean 14.074,00 € + 10 % BEZa*

*Lizitazioa kalkulatzeko txantiloia aplikatuta, urteko amortizazioari finantza-kostuak aplikatu behar zaizkio, eta, azkenik, GG eta BI ehunekoak aplikatu.*

*Hori guztia dela eta, ondorioztatu da urteko kostua 20.413,65+%10eko BEZa dela.*

*Hileko kostua: 1.701,14 €+ BEZaren % 10*
*Aldaketetatik ateratzen den zenbatekoa, 87.129,47 €/urteko +%10 BEZa*
*Igoeraren % kontratuaren urteko prezioarekiko: % 6,64*
*Gehikuntzaren ehunekoa plegu administratiboaren 39.artikuluan ezartzen den %20tik beherakoa da*

*III.- 2026/06/16 udal Idazkariaren txostena, kontratu aldaketa zuzenbidearen araberakoa dela adieraziz. Espedientean ere jasotzen da kontuhartzailearen txostena fiskalizazioari buruzkoa eta kreditua egoteari buruzkoa.*

*Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari proposatzen dio:*

*<u>Lehenik:</u>*

*(CISTERNA RIGUAL fabricada en aluminio con 8.500 litros de capacidad) (véase anexos 3 y 4 del informe)*

*Contrastadas las características técnicas exigidas por el Pliego Técnico respecto de las que se describen en las ofertas presentadas, se concluye que el material presupuestado cumple lo solicitado por el Pliego Técnico*

*La inversión total correspondiente al suministro del camión baldeador es de 140.740,00 € + %10 IVA*

*Teniendo en cuenta que en el contrato se estipula una amortización de 10 años, ello supone una amortización anual de 14.074,00 € + %10 IVA.*

*Aplicando la plantilla de cálculo de la licitación, a la amortización anual hay que aplicar los costes financieros y finalmente aplicar los porcentajes de GG y BI.*

*Por todo ello se concluye que el coste anual para el suministro del camión baldeador, es de 20.413,65 + 10% IVA,*
*Coste mensual: 1.701,14€ + 10% IVA*

*El importe resultante de las modificaciones asciende a 87.129,47 €/a±o + 10% IVA,*
*% de incremento respecto del precio anual del contrato: 6,64 %*
*El porcentaje de incremento es inferior al 20% que establece el pliego administrativo en su artículo 39*

*III.- Informe de la Secretaría municipal de fecha 16/06/2026 indicando que la modificación del contrato es ajustada a derecho. En el expediente también consta el informe de la interventora sobre la fiscalización y la existencia de crédito*

*En consecuencia, el Area de Lurraldea propone al Ayuntamiento Pleno*

*Primero:*

*Beasaingo udalerrian bide-garbiketa eta antzeko beste batzuk egiteko zerbitzu-kontratua aldatzea:*

- *Peoi garbitzaile bat kontratistaren plantillara atxikitzea. Honela baloratzen da: 66.715,82€/ urteko (GO eta IO, barne) + %10eko BEZ.*
- *Kontratistak beste kamioi baldekatzaile bat erosi behar du, hau da: Kamioiaren txasisaren fabrikatzaileak (IVECO EUROCARGO ML150E22P modeloa "EURO 6E", 220 HP), eta garbiketa-tangaren hornitzailearen 8.500 litroko edukiera duen aluminiozko RIGUAL etxekoa) (ikus txosten teknikoaren 3. eta 4. eranskinak).*

  *Inbertsioa guztira: 140.740,00 + BEZ. Urteko amortizazioa: 14.070,00 + BEZ. Urteko kostua. 20.413,65 (finantzaketa, GG eta BI, barne) + BEZ (%10).*

*Bigarren:*

- *Kontratuaren urteko prezioa (1.311.445,11€), 66.715,82 €tan handitzen da.*
- *Hilero (2026ko urrian izan ezik), 7.260,79 €+ % 10eko BEZa fakturatuko da.*
- *kontratuaren aldaketa indarrean jartzeko datak kontuan hartuta (peoi garbitzailearentzako 06-10-2026 eta kamioiarentzako 1-10-2026), 2026ko urrian honako honela fakturatuko da:*
  - *4.662,93€+ % 10eko BEZa, peoi garbitzaileari dagokiona.*
  - *1.701,14€+ % 10eko BEZa, kamioiaren amortizazioari dagokiona.*

***Hirugarren:***

*Kontratuaren aldaketa sinatu aurretik, kontratistak 13.069,41€ko fidantza edo abala aurkeztu beharko du, aurretik aurkeztutakoa osatzeko.*

*Modificar el contrato de servicio para la prestacion de limpieza viaria y otros afines en el municipio de beasain Beasain, incluyendo:*

• *Adscribir un peón limpiador a la plantilla de la contratista. Se valora en 66.715,82€/anuales (incluido GG y BI) + 10% de IVA.*

• *Adquirir por parte de la contratista un nuevo camión baldeador, esto es: Camión (IVECO EUROCARGO modelo ML150E22P "EURO 6E", 220 CV), y del suministrador de la cisterna de baldeo (CISTERNA RIGUAL fabricada en aluminio con 8.500 litros de capacidad) (ver anexos 3 y 4 del informe técnico).*

• *Inversión total: 140.740,00 + IVA. Amortización anual: 14.070,00 + IVA. Coste anual. 20.413,65 (incluido financiación, GG y BI) + IVA(10%).*

*Segundo.*

• *El precio anual del contrato (1.311.445,11€), se incrementa en 87.129,47€ + 10% IVA.*

• *Mensualmente (excepto en el mes de octubre de 2026), se facturará, 7.260,79€+ 10% IVA.*

• *Teniendo en cuenta las fechas de entrada en vigor de la modificación del contrato (06-10-2026 para el peón limpiador y 1-10-2026 para el camión), en el mes de octubre de 2026, se facturará:*

o *4.662,93€+ 10%IVA, correspondiente al peón limpiador.*

o *1.701,14€ + 10%IVA, correspondiente a la amortización del camión.*

*Tercero:*

*Con anterioridad a la firma de la modificación del contrato, la contratista deberá, presentar fianza o aval que complete la anteriormente presentada, por valor de 13.069,41€*

*Cuarto:*

*La modificación del contrato entrará en vigor:*

*Laugarren. Kontratuaren aldaketa indarrean sartuko da:*
*- Peoi garbitzaile bat kontratistaren plantillari atxikitzea: 2026ko urriaren 6an.*
*- Urez garbitzeko kamioi bat hornitzea, 10 urteko amortizazio-epearekin: 2026ko urriaren 1ean.*
*Horretarako, bi alderdiek (kontratatzaileak eta kontratistak) dagokion administrazio agiria sinatu beharko dute.”*

*- En relación a la incorporación de un nuevo operario peón limpiador a la plantilla de la contratista, el 6 de octubre de 2026.*
*- En relación al suministro del camión baldeador, con un periodo de amortización de 10 años, el 1 de octubre de 2026.*
*Para ello, previamente deberá estar formalizado el documento administrativo correspondiente por ambas partes (contratante y contratista).”*

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Sometida a votación se aprueba por unanimidad.

**5.- MOZIOA**. EAJ ETA EH BILDUREN MOZIOA, FORUEN ABOLIZIOAREN 150. URTEURRENA ETA ALKATEEN MUGIMENDUAREN 50. URTEURRENA DIRELA ETA. 2026IDBO0017

**5.- MOCIÓN**: MOCIÓN DE EAJ Y EH BILDU, CON MOTIVO DEL 150 ANIVERSARIO DE LA ABOLICIÓN DE LOS FUEROS Y DEL 50 ANIVERSARIO DEL MOVIMIENTO DE ALCALDES.

Leire Artola Ugalde, Alkate andrea (EAJ-PNV) eta Hasier Agirre Elkoroberezibar Beasaingo EH Bilduren bozeramailearen artean ondorengo mozioa irakurri dute:

La Sra. Alcaldesa, Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV) y Hasier Agirre Elkoroberezibar, portavoz de Beasaingo EH Bildu leen conjuntamente la siguiente moción:

“*Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena direla eta*

***ZIOEN AZALPENA***

*2026. urteak garrantzi historiko eta politiko berezia du Euskal Herriaren-tzat. Izan ere, beste zenbait mugarriren artean –hala nola, Eusko Jaurlaritza eratu zela 90 urte betetzen dira– aurten bi efemeride nagusi ditugu: batetik, 1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena; eta, bestetik, 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena.*

*1876ko uztailaren 21eko legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenaren abolizioa ekarri zuen, Bigarren Karlistadaren amaieraren testuinguruan. Nafarroa Garaiaren kasuan, foru-araubidearen eraldaketa eta burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 urteen artean, Frantziako iraultzaren eskutik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa gertatu zen. Hiru prozesu horiek, bakoitza bere une historikoan eta bere berezitasunekin, Euskal Herriko lurraldeek mendeetan garatutako instituzio, eskubide historiko eta burujabetza politikoaren galera eta murrizketa ekarri zuten. Erabaki haiek herri borondatearen gainetik ezarri ziren, eta ondorio sakonak izan zituzten Euskal Herriaren egituraketa instituzionalean, lurralde-artikulazioan eta autogobernuan.*

*1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren amaieraren testuinguruan eta trantsizio politikoaren atarian, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren. Alkateen Mugimendu hark Foruen abolizioaren mendeurrena baliatu zuen Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko.*

*1976ko adierazpen hartan jasotako espirituak gaurkotasun osoa du orain-dik ere. Izan ere, udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun politiko eta instituzionala funtsezkoa izan da, eta gaur egun ere udal era-kundeek herritarren borondate demokratikoaren adierazpide hurbilena izaten jarraitzen dute.*

*Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaiela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean bere gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; ala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungi ezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez bait zegoen foraltasun zaharrean, eskubide historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegi-tik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.*

*Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta erabakiaren jabe behar dugula izan.*

*Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzukidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.*

*Erronka horiei guztiei ezin zaie behar bezala erantzun eskumen mugatuekin. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatzeko.*

*Horregatik, oroimen historikoaren aitortzak gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatu behar du.*

*Horregatik guztiagatik, Beasaingo Udalbatzak honako hau erabaki du:*

***ERABAKIAK***

*Lehena.*
*Beasaingo Udalak bat egiten du Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrenaren eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenaren oroitzapenarekin, eta bi efemeride horien garrantzi historiko, politiko eta instituzionala aitortzen du.*

*Bigarrena.*
*Udal honek aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa Frantziako iraultzarekin gertatu zela 1789 eta 1790 artean; horrez gain, aitortzen du 1841ean Nafarroa Garaian, eta 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezarritako foru-erregimenaren murrizketa eta abolizio prozesuek euskal lurraldeen jatorrizko eskubide historikoen eta burujabetza instituzionalaren galera ekarri zutela. Era be-rean, aldarrikatzen du eskubide horiek ez direla iraungi, ezta herri borondate demokratikoaren ordez kanpoko erabakiz deuseztatu ere.*

*Hirugarrena.*
*Udal honek berresten du Euskal Herria Europako herri guztien artean be-rezko nortasuna eta nazio izaera duen herria dela, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurralde-etan duela bere leku geografikoa eta euskal nazioa osatzen duten herritarrek dutela beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea.*

*Laugarrena.*

*Udal honek aldarrikatzen du beharrezkoa dela foru integrazioaren eta burujabetza osoaren bidean urrats berriak egitea, eta, horretarako, Euskal Herriko lurraldeen eskubide historikoak eta autogobernua eguneratzea, gaur egungo behar demokratiko, sozial eta instituzionaletara egokituz.*”

*Bosgarrena.*

*Udal honek aitortzen du udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun erabakigarria, bereziki foru tradizioan, udal demokrazian eta herri ordezkaritzan; eta konpromisoa hartzen du etorkizunean ere Euskal Herria-ren eraikuntza demokratikoan, erakunde demokratikoen rola indartzeko eta hauen artean, bereziki, udal erakundeena.*

*Seigarrena.*

*Udal honek bat egiten du 2026ko uztailaren 19an Bergaran antolatuko den ekitaldi politiko-instituzionalaren helburuekin, Alkateen Mugimendua gogoratzeko, 1976ko udal ordezkarien ekarpena aitortzeko eta Euskal Herriaren eskubide historikoen aldeko konpromisoa berritzeko.*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos): "Guk gure aldetik esan nahiko genuke ez zaigula askotan gertatu mozio baten proposatzen diren erabakiak ondo ikustea eta alde egotea, baina zioen azalpenekin nahiko kontrajarrita aurkitzea. Gure ustez mozio honek oroimen historikoa aldarrikatzen du baina auto selektibo eta partzial batean azaltzen du bere kontakizuna, gertakari konplexuak gaur egungo agenda politikoari egokitzeko moduan sinplifikatuz. Lehenik mozioak foruen abolizioa, XIX. mendeko karlisten ondoko kanpokoen erabakien emaitza gisa aurkezten du, herri borondatearen aurka ezarritako neurri soil gisa. Euskal gizartearen barne gatazka eta aniztasun politikoa ezkutatuz. Hala ere, bigarren gerra karlistaren testu inguruan euskal probintzietan ez zen herri bakar monolitikorik existitzen. Liberalismoaren aldeko sektore indartsuak zeuden, bereziki hiriburuetan. Karlismoaren aurka borrokatu zirenak eta horien protagonismoa mozioak sistematikoki estaltzen du. Bigarrenik, mozioak ez du aipatzen foruen krisiaren eta abolizioaren atzean estatu liberalaren eraikuntza prozesu luzea dagoela.1851eko Nafarroako lege hitzartutik eta 1876ko abolizio legetik igarotzen dena eta non foruen aurkako presioa ez den bakarrik kanpotik etorritakoa baizik eta estatu zentralizatzailearekin bat egin zuten euskal liberalismoaren nagusienak. Foruen abolizioa euskal liberatu-programaren parte izan zen. Egitura juridiko bakarra eta betebehar

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Aritz Corsitto Agirre (Elkarrekin Podemos): "A nosotros, por nuestra parte, nos gustaría decir que no nos ha pasado muchas veces ver bien y estar a favor de las decisiones que se proponen en una moción, pero al mismo tiempo, no estar de acuerdo con la exposición de motivos. Entendemos que esta moción reivindica la memoria histórica, pero explica su relato en un auto selectivo y parcial, simplificando los hechos complejos de forma que se adapten a la agenda política actual. En primer lugar, la moción presenta la abolición de los foros como el resultado de las decisiones externas posteriores a los carlistas del siglo XIX, como una mera medida impuesta en contra de la voluntad popular. Ocultando el conflicto interno y el pluralismo político de la sociedad vasca. Sin embargo, en torno al texto de la segunda guerra carlista no existía ningún pueblo monolítico en las provincias vascas. Había fuertes sectores favorecedores del liberalismo, especialmente en las capitales. Los combatientes del carlismo y su protagonismo están sistemáticamente cubiertos por la moción. En segundo lugar, la moción no hace referencia a que detrás de la crisis y abolición foral hay un largo proceso de construcción del Estado liberal que pasa por la concertada ley navarra de 1851 y la abolición de 1876, donde la presión contra los fueros no es sólo la procedente de fuera sino la de los mayores liberalismo vasco que se unieron al Estado centralizador. La abolición foral formó parte del programa vasco de liberados.

militarraren unifikazioa ezartzeko. Kupoa armadako derrigorrezko parte-hartzea etab. Hori mozioak ezabatzen du. Gatazka sozial eta politikoa herriaren eskubide ukatuen eszenari sinplifikatura murriztuz. Testuak, Euskal Lurralde eskubide historikoak eta borondatea, kategoria bakarrean nahasten ditu, karlisten eta liberalen arteko gatazka sakona lausotuz. Euskal hiriburu gehienak liberalak izan ziren eta askotan karlisten aurkako motor- leku. Ez da egiazkoa, beraz, Euskal Herriaren nahia subjektu bakar eta karlista gisa irudikatzea. Mozioak ez du inongo arrastorik ematen Espainiako monarkia Borboiaren inguruan, euskal lurraldeetan egon zen babes-maila esanguratsuaz, ez da karlistekin egindako aliantza ere. Zuzenean baldintzatu bait zuten foru bukaeren negoziazioa eta ondorengo ekonomiko kontzeptuaren sorrera. Laburbilduz, mozioak memoria historikoaren alde egiten dioen arren kontakizun partzial eta interesatua eskaintzen duela uste dugu. Euskal gizartearen aniztasun politikoa ezkutatzen du liberalismoaren eta estatu liberala eraikuntza rola desagerrarazi eta horren bidez XIX. mendeko gatazka konplexuak eta 1976ko testu inguru errepresiboa, gaur egungo agenda politikoaren zerbitzura sinplifikatzen dira. Hori dela eta guk gure abstentzioa azaltzen dugu."

Establecer una estructura jurídica única y la unidad de la obligación militar. Cupo participación obligatoria en el Ejército, etc. Esto es eliminado por la moción. Reduciendo el conflicto social y político a la escena simplificada de los derechos negados del pueblo. El texto confunde los derechos históricos y la voluntad del Territorio Vasco en una sola categoría, difuminando el profundo conflicto carlista y liberal. La mayoría de las capitales vascas fueron liberales y en muchos casos lugares de moto anticarlista. No es cierto, por tanto, que la voluntad del Pueblo Vasco se represente como un sujeto único y carlista. La moción no aporta ningún rastro en torno a la monarquía borbónica española, con un nivel significativo de protección en los territorios vascos, ni es una alianza con carlistas. Condicionaron directamente la negociación de los fines forales y el surgimiento del concepto de economía posterior. En definitiva, creemos que aunque la moción aboga por la memoria histórica ofrece un relato parcial e interesado. Oculta el pluralismo político de la sociedad vasca, eliminando el rol constructivo del liberalismo y del Estado liberal y simplificando los complejos conflictos del siglo XIX y el entorno represivo del texto de 1976 al servicio de la agenda política actual. Por ello, nosotros manifestamos nuestra abstención. "

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "creemos que nos encontramos ante una moción que hace una interpretación nacionalista de la historia. Hace un uso partidista de la misma. La historia es de todos y no estamos a favor de que se haga un uso partidista de la misma. No compartimos el uso de estos acontecimientos para legitimar el proyecto soberanista actual. Los fueros no son propiedad del nacionalismo. Existían antes del nacionalismo y no legitima el proyecto político actual. Creemos que el autogobierno nace de la democracia. Su origen no está ni en los fueros ni en la declaración que se hizo en Bergara en 1976. En esa reunión fueron más de 70 alcaldes, no elegidos por sufragio universal, ya que eran alcaldes que venían del franquismo. No se le da la palabra al pueblo vasco, ya que no están todos representados. Además de eso en el texto se nombra a Navarra. Se habla de un sujeto político formado por siete territorios y creemos que hay que respetar a Navarra porque tiene sus propias instituciones y es ella quien tiene que elegir. No lo compartimos. Creemos en el autogobierno que hoy disfrutamos, que nace de una democracia conquistada y no de esta entelequia. Es fruto del Estatuto de Gernika, de la Constitución y de la pluralidad que hoy gozamos en el pueblo vasco."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "ez naiz hasiko historiaren errepasoa egiten baina mozioa partziala izateari esan, mozioa burujabetzatzat ari dela eta herritar guztiak dutela erabakitzeko aukera. Ez dugu

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "no voy a empezar a hacer un repaso de la historia pero decir en cuanto a la parcialidad de la moción, que la moción habla de soberanía y que todos los ciudadanos tienen la oportunidad

inolako bereizketarik egiten. Ez gara ari karlista, liberala, nazionalistei buruz baizik eta herritarren erabakitzeko eskubideaz. Uste dut gauza integratzailekorik gutxi daudela. "*Uso partidista*" esaten denean, ez dakit zein partiduaz ari garen. Hau da guk Euskal Herria nola ulertzen dugunaren isla eta hobeto izateko zein bide planteatzen ditugun. Nafarroa aipatzen dugu, baina ez dugu esaten bakoitzak nola bozkatu behar duen, baizik et guk nola ulertzen dugun. "*Alcaldes que vienen del franquismo*", nik haietako bat dakit zein zen, Jose Luis Elcoro, baina ez dut uste alkate frankistekin ezer ikusteko zuenik. Garai hartan legitimoa zer zen eta ez, ez dut uste oso zilegi zenik. Mozio honekin herria ulertzeko moduko aitorpen bat egiten da eta burujabetzarekin herria eraikitzeko intentzionalitate bat, besterik ez."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "guk mozio honen bitartez gure herria berresten dugu. Euskadi, berezko nortasuna duen herria da eta gure nortasun politikoa modu librean erabakitzeko eskubidea dugula uste dugu. Aipatu duzu frankismoaren ondorioz 1976an Bergarara gerturatu ziren alkate horiek ez zirela demokratikoki hautatuak izan baina balioan jarri behar dugu garai hartan egin zuten saiakera, nortasun nazionala aldarrikatzeko. Udalak gertuan gauden erakundeak izanik hor daukagu palanka eta gizartea mobilizatzeko aukera. Datorren uztailaren 19an ere Bergaran hori berrikustea da denon asmoa. Gure herria aurrera ateratzeko autogobernu eta burujabetzan aurrera pausoak eman behar ditugu eta zentsu horretan mozio hau aurkeztu dugu EH Bildurekin batera."

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos): "nik berriro esango dut. Orokorrean proposamenekin ados gaude, baina abstenitu egingo gara ez zaigulako iruditzen emandako arrazoiak guztiz zehatza direnik. Esan nahi dudana da ez gaudela aurka."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "badakit hau alderdien artean adostutako mozioa dela, baina besteetan bezala, ekarpenak egiteko aukera

de decidir. No hacemos distinción alguna. No estamos hablando de carlistas, liberales, sino de nacionalistas, del derecho a decidir de la ciudadanía. Creo que hay pocas cosas más integradoras. Cuando se dice "uso partidista" no sé a qué partido nos referimos. Este es el reflejo de nuestra manera de ver el País Vasco y las vías que planteamos para ser mejor. Hablamos de Navarra, pero no decimos cómo tiene que votar cada uno, sino cómo lo entendemos nosotros. "Alcaldes que vienen del franquismo", yo conozco a uno de ellos, José Luis Elcoro, pero no creo que tuviera nada que ver con los alcaldes franquistas. Qué era legítimo en aquella época y no, no creo que fuera muy legítimo. Con esta moción se hace un reconocimiento para comprender el pueblo y con la soberanía sólo una intencionalidad de construir el pueblo. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "nosotros mediante esta moción reafirmamos nuestro pueblo. Euskadi es un País con identidad propia y creemos que tenemos derecho a decidir libremente nuestra identidad política. Como comentas, estos alcaldes que se acercaron a Bergara en 1976 a causa del franquismo no fueron elegidos democráticamente, pero debemos poner en valor el intento que hicieron en aquella época de reivindicar su identidad nacional. Con los ayuntamientos como instituciones cercanas tenemos la palanca y la oportunidad de movilizar a la sociedad. La intención de todos es revisarlo también en Bergara el próximo 19 de julio. Para sacar adelante nuestro país tenemos que dar pasos en el autogobierno y soberanía y en ese sentido hemos presentado esta moción junto con EH Bildu. "

Aritz Corsitto Agirre (Elkarrekin Podemos): "yo insisto. En general estamos de acuerdo con las propuestas, pero nos abstendremos porque no creemos que los motivos aducidos sean del todo precisos. Lo que quiero decir es que no estamos en contra. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV) "sé que esta es una moción consensuada entre partidos, pero como en otras ocasiones has tenido la

izan duzu. Baina ulertzen dut beste testuinguru batetan egon gaitezkela.”

oportunidad de hacer aportaciones. Pero entiendo que podemos estar en otro contexto. "

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da.

Sometida a votación, se ha obtenido el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)
Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstentzioak: 1 (Elkarrekin Podemos)
Etorri gabeak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Votos a favor: 13 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)
Votos en contra: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstenciones: 1 (Elkarrekin Podemos)
Ausentes: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da mozioa.

En consecuencia, se aprueba la moción por mayoría absoluta.

**6.- BERRI EMATEA**:

**4.- DACION DE CUENTA**:

Ezagutzera eman dira:

a.- 2026ko maiatzaren 8tik ekainaren 21era emandako Ebazpenak.

b.- 2026ko maiatzaren 8tik ekainaren 21era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Se da cuenta de las siguientes Resoluciones:

a. Resoluciones dictadas desde 8 de mayo hasta el 21 de junio de 2026.
b. Resoluciones en relación a contratos menores dictadas desde 8 de mayo hasta el 21 de junio de 2026.

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), kontratu txikiei buruz ondorengoa galdetu du: “Scape Monument, imagino que será lo de Igartza.

Angel Redondo Fernandez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) pregunta sobre los contratos menores :"Scape Monument, imagino que será lo de Igartza.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “bozeramaile taldeak komentatu zen. Izaera bereziko kontratu txikia da eta kontratu txikiaren baldintzak betetzen ditu. Zenbatekoa gaindizen du baina izaera artistikoa du. Baina lasaiago begiratuko dugu eta bozeramaile taldean adieraziko dugu.”

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se comentó en la Junta de portavoces. Se trata de un contrato menor de carácter especial que cumple los requisitos del contrato menor. Supera el importe, pero tiene carácter artístico. Pero lo miraremos más detenidamente y lo aclararemos en la Junta de Portavoces. "

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “revisando los contratos menores de Zerki Zerbitzuak hay tres contratos menores con prácticamente el mismo objeto y el sumatorio de los tres supera los 18.000€. Al hilo del informe emitido por la Interventora pedimos que sigáis trabajando en los contratos menores.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “horretan gabiltz. Hori urte askotan kontratatuta izan dugu eta zailtasunak izan ditugu merkatuan beste enpresa batzuk bilatzeko. Asmoa lizitaziora bueltatzea da.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): "en eso estamos. Esto lo hemos tenido contratado durante muchos años y hemos tenido dificultades para buscar otras empresas en el mercado. La intención es volver a la licitación. "

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “quedamos a la espera de que nos aclaréis lo de Skate monument.”

## 7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen artean honelakoak aurkeztu dira:

BEROALDIA ETA BABES KLIMATIKOA

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "azken aldian bizitzen ari garen beroaldia dela eta hainbat eskaera egin izan ditugu azken aste eta egunetan eta iaz ere bai. Erantzun batzuk ez zaizkigu gustatu baina egia da baita ere hainbat udal-instalazio ez daudela prestatuta bero hauei aurre egiteko.

Zentzu honetan bi eskaera egiten ditugu:
1.- Udal eraikin egoera aztertu eta klimatizazio jasangarri instalazioen kronograma egitea, lehentasuna egoera okerrenean daudenetik hasita.

2.- Guzti hau arautuko duen emergentzia-plana osatzea eta babes natural batzuk aurreikustea. Badakigu udara honetarako denbora ez duela emango baina legealdia amaitzeko ea posible den. Lanketan parte hartzeko gure eskua luzatzen dugu."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "aurrekontuetan emergentzia-plana egiteko diru-kontusaila adostutako dago eta horri bide emango diogu. Horretarako atal bat bero-plana izango da eta horri aurre egiteko zein ekintza txertatu behar ditugun. Inoiz ez bezala dagoeneko bi beroaldi izan ditugu eta konturatzen gara beroaldi hauek geratzeko etorri direla. Horrek eskatzen du planifikazio bat egitea. Teknikariekin hitz egin dugu planifikazio hori egiteko eta lehentasun batzuk markatzeko. Azken birgaitzetan klimatizazioa txertatuta dago, baina udaletxean bertan espazio batzuetan ez dago klimatizaziorik eta beste udal-eraikinetan ere berdin gertatzen da. Lehentasunak markatzeko irizpide ezberdinak kontuan hartu beharko ditugu, hala nola, espazioen erabilera udaran zenbatekoa

## 7.- RUEGOS Y PREGUNTAS

En el apartado de ruegos y preguntas se exponen las siguientes:

CALOR Y PROTECCIÓN CLIMÁTICA

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu de): "con motivo del calor que estamos padeciendo en los últimos tiempos hemos realizado varias peticiones en las últimas semanas y días, y también el año pasado. Algunas respuestas no nos han gustado, pero también es cierto que algunas instalaciones municipales no están preparadas para hacer frente a estos calores.

En este sentido, realizamos dos peticiones:
1.- Análisis de la situación del edificio municipal y elaboración de un cronograma de instalaciones de climatización sostenible a partir de su priorización en las situaciones más desfavorables.
2.- Completar el plan de emergencia que regule todo ello y prever unas protecciones naturales. Sabemos que no va a dar tiempo para este verano, pero a ver si es posible para el final de la legislatura. Extendemos nuestra mano para participar en la elaboración. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "la partida presupuestaria para la elaboración del plan de emergencia está consensuada y vamos a dar pie a ello. Para ello, un apartado será el Plan de Calor y las acciones a implementar para combatirlo. Como nunca antes, hemos tenido ya dos olas de calor y nos damos cuenta de que estas olas han venido para quedarse. Esto requiere una planificación. Hemos hablado con los técnicos para hacer esa planificación y marcar unas prioridades. En las últimas rehabilitaciones está incorporada la climatización, pero en el propio ayuntamiento hay espacios en los que no hay climatización y sucede lo mismo en otros edificios municipales. Tendremos que tener en cuenta diferentes criterios para marcar prioridades, como el uso

den, ordutegiak, erabiltzaileak zeintzuk diren, lehentasuna zaurgarriei emanez, etab. Zentzu horretan etxe tutelatuetan adinekoei begira laster batean jarriko da klimatizazioa eta berdin Seaska haurreskolan. Planifikazio zehatza eta txukuna egitea eskatzen du honek guztiak."

de los espacios en verano, horarios, personas usuarias, dando prioridad a las más vulnerables, etc. En este sentido, en los hogares tutelados se pondrá en breve la climatización para las personas mayores y también en la haurreskola Seaska. Todo ello requiere una planificación precisa y ordenada. "

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos), batzorde informatiboan etxebizitza sozial-alogera kontratu bat luzatzeari buruz emandako informazioaren arabera, ikuspuntu legal eta etiko aldetik arazoak ekarri ditzakeen erabakia ote denaren ustea adierazi zela adierazi du eta esan du ez zitzaiela oso garbi geratu 17 urtez luzatzen joan den kontratuaren zergatia.

Aritz Corsitto Agirre (Elkarrekin Podemos) señala que, de acuerdo con la información facilitada en la comisión informativa sobre la prórroga de un contrato de alquiler de vivienda social, se indicó la creencia de que se trata de una decisión que puede plantear problemas desde el punto de vista legal y ético y que no quedó muy claro el motivo por el que se ha ido prorrogando durante 17 años.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "ez da egoera berria. 2019tik datorren egoera bat da eta ibilbide honetan ere esango dugu familia horren egoera aldatu egin dela baina, azken urteetan pertsona honi kontratu hori egin zaio, ez modu ohikoan, eta aldatzeko asmoarekin. Zentzu horretan datorren astean kontratua sinatzeko datorren horretan, aprobetxatuko dugu berarekin elkarrizketa bat izateko gizarte-ongizateko teknikariak lagunduta. Gure helburua da, azken luzapena izatea. Ikusi beharko dugu zeintzuk diren gaurko eguneko baldintzak eta zein aukera eduki dezakeen eta beste herritarren parean jarri eta beste herritarren baldintza berdinetan etxebizitza-egoera konpondu. Ez dago inolako faboritismorik baizik eta udal honek egoera bati eman dion erantzunaren jarraipena."

Alcaldesas (EAJ-PNV): "no es una situación nueva. Es una situación que viene de 2019 y en este recorrido también diremos que la situación de esta familia ha cambiado, pero en los últimos años a esta persona se le ha hecho ese contrato, no de la forma habitual, y con la intención de cambiarlo. En este sentido, teniendo en cuenta que la semana que viene vendrá a firmar el contrato, aprovecharemos para mantener una conversación junto con la técnico de bienestar social. Nuestro objetivo es que sea la última prórroga. Habrá que ver cuáles son las condiciones a día de hoy y qué posibilidades puede tener y ponernos a la altura de otros ciudadanos y resolver la situación de la vivienda en igualdad de condiciones que otros ciudadanos. No hay ningún favoritismo sino continuidad en la respuesta de este Ayuntamiento a una situación. "

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecinueve horas y quince minutos, de lo cual como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.